

Amak lanean, beren umeak ikasten

Baltzu edo enpresa barruan ume-zaingoak euki; auxe da, itxura danez, auzi ontatik atera geinken jokabiderik onena.

Bruce ROBERTS'ek

GAUR-EGUN, bost milloi ta geiago amak lanean diarduc Laterri Bañuetan; itaun au, beraz bidenabar bezala datorkigu gogora: «Nork zaintzen ete ditu umeak, amak lan dagian bitartean?» Geiena «baby-sitter» edo ume-kokalekuetan eta senideen ardurapean dagoz, eta beste batzuk ume-zaingo edo guardarrietan. Euren jabe ta gaiñeko diran ume-zain-leku oneik, gero ta geiago azi ta ugaritzen doaz; sarritan, baiña, etxetik eta lantegitik urrin samar aurkitzen dira, eta euren oker, atzerabide ta egoki-ezak daukez. Beste bide obeago bat, gaur errian indar artuz doana, ume-zaingoak —guarderiak— enpresa barruan eukitea da; eskolak beroneitan fabrika ta lantegi barruan dagoz ipiñita. Onakoetan, amak egunero joan-etorri bat besterik ez dau egiten-eta, astia ta gasolina-beuren umeakaz, nai izan ezkeru, jana egin leikee-irabaziz.

Umeen ardurea eukiteko leku onein eredu eder bat, Asheville'n, Ipar-aldeko Karolina'ko Vanderbilt Shirt Alkartean daukiena, dozue. Toki onek egunero zaindu ta gordeten ditun 40 umeak goizetik datoz bertora, goizeko 6,45'rako nunbait, eta ondoren eurretatik bakotxa zeregin bereziakaz talde ta mordo txikietan eratzen dira. Eskola aurreko adiñean dagozan aurrak, aske ta eskuko dira eurak naiien dabena aukeratzeko; maisuak eta laguntzailleak bitartean gain-ikuskatzen dabez taldeak, eta oneik bizkortu ta susper-azo oi dabez umeak zeregin apartekoe-tan jardun daitezcan.

Illean noizik bein, ikas-aretoan ikasten dabena obeto osoagotzeko, joan-etorri ta ikustaldi batzuk egin oi dabez umeak bertako liburutegi, denda, baratz, landetxe, industri-azoka, ertzaindegi naiz urreko zumardi batera.

Arrautz-opillezko bokau bi ta



Amak lanean, aurak ikasten

Janari bero bat ume-zaingoan bertan emoten jakez, an daukien sukaldean gertautu. Amak eurak be sarri bertan geratzen dira euren seme-alabakaz bazkaltzen, urte-betetze ta antzeko jai ta jazoeretan batez be. Bidenabar, Alkarteko burua bera ere, Herbert Wadopin jauna, jai dagienakaz alkartu oi da.

Jan-ostean, umerik txikienak bazkal-ostekoa egiten dabe aurzaingoak ipiñitako kumatxo ta

seaska pitiñetan. Beste batzuk kirol-zelaira doaz, eta emen daukiez olgetako txinboak, amakak, ondar-kutxak eta beste olako joku-gailluak. Eguraldi txarra danean, barruko jinasi-leku batera doaz, soin-ariketak egitera.

Ardurategiak, ikastaroan dagozan umeak be artzen dauz, euron opor-aldietan eta eskolarik ez daukien astegunetan. Au lagungarri jake amai, bestelan euren etxetan egon bearko leuke geienetan.

euren lan bitartean, baby-sitter'ik edo umeak nun itxirik ez ba'daue.

Vanderbilt Baltzuak, Konpañiak, 375 emakume langille daukaz, eta onein seme-alabak errezegokitzen dira bertoko ume-zaingoan. Gurasoak asteko 15 dolar ordaintzen dabez lenengo semea-

gaitik, 10 bigarrenagaitik. Janedanarena Konpañiak ordaintzen dau. Alkartasunarentzat zerbitzu bat lez, enpresek eskintzen dauz erreztasunak Vanderbilt Konpañian lan egiten ez daben gurasoai be, geitxoago ondaindu-azorik.

Aita ONAINDIA'k euskeratua.



Baikorra, gizona!

Lengo batean Paris'eko iizitegia (zoo) ikusten ari omen zan politikari bat, oraindik ere ur-gaiñean dauden oietako bat. Ibillian-ibillian, dorkak (tortugak) zeuden lekura iritxi zan eta beraiei begira gelditu.

— Bai, oso abere maitagarriak dituzu —esan zion iizitegiko zuzendariek—. Zure baratzerako bat edo beste bidaltzea naiko al zenduke?

— Bai orixe! Eskerrik asko.

— Ez dute ia lanik ematen. Gaiñera, beren bizi-luzea dala-ta, famatuak dira: ea, eun da berrogeitamarren bat urte bizitzen dira-ta...

— A! Orduan ez zaizkidazula bidali.

— Zer, ba?

— Ba... batek lege aundia artzen die eta gero, iltzen diranean, a ze atsekabea!